



Etorkizunari aurre egiteko prest, bost urte bete ditu jada Txolarre Irratiak

HAZTEN ▶ Urtarriletik aurrera Internetez ere entzun ahal izango da eskualdeko irratia programazioa ▶ 4-5



Jon Miranda esataria, Anoetako Gabonetako ludotekan dagoen haur talde batekin solasean. NEREA URBIZU

LUIS ECEIZA ▶ GOZOGILEA

«Aitak aspaldi hasitako lanaren saria izan da orain jaso dudana»

Merkataritza Jarduerari Saria jaso du Merkataritza Ganbararen eskutik ▶ 3

TOLOSALDEA ▶

EHNAren aldeko mezu ugari ekimen ezberdinetan

Tolosaldeko Bai Euskal Herriari-k deituta, 40 bat lagun bildu ziren ostiraleko bilkuretan ▶ 6



Gizona, EHNA erabiltzen. HITZA

TOLOSA ▶

Tolosa klubak doan egingo ditu bazkide 6 urtetik beherakoak

Jaioberrien gurasoei gutuna bidaliko zaie informazio guztia zehaztuz ▶ 6

LEITZALDEA ETA TOLOSALDEA ▶

Guardia Zibilak Plaza Zaharreko Olentzeroa «lapurtu» du Areson

Herritarrek errezeloa zuten aurretik, «behin eta berriz erasotu» dutelako ▶ 7



Plaza Zaharrean zegoen Olentzeroren etxea, hutsik. JAIONE ASTIBIA

ASTEASU ▶

Madrazo «pozik» geratu da emaitzekin

Soziokultural zentroa bisitatu zuen atzo ▶ 6

TOLOSA ▶ KIROLA

6 urte azpiko umeak Tolosako bazkide egiteko deia, doan

Berazubiko bulegoetara jo beharko dute txartela lortzeko; urtarrilaren 16an, berriz, klubak urteko batzarra egingo du

NOELIA LATABURU

Tolosa futbol taldeak deialdi berezia egin nahi izan du Egu-berri hauetan. Horrela, gaurtik aurrera, Tolosan jaioberri diren guztiek Tolosako bazkide izateko aukera izango dute, dirurik ordaindu gabe, sei urte bete bitartean. Urte hauek betetzen dituztenean, gainera, bazkide izateko aukera izango dute infantilen mailan, unean

uneko kuota ordaindu beharko dutelarik. Honekin batera, eta aurreko urteetan jaiotako eta oraindik sei urte horiek bete ez dituzten umeekin bereizketarik sueta ez dadin, horiek ere izango dute aukera bazkide txartela lortzeko, jaioberriei ematen zaizkien baldintza berberekin.

Batzuontzat zein besteontzat ezinbestekoa izango da Berazubiko zelaian dauden bulego-

etara jotzea, astelehenetik ostiralera, 17:00etatik 20:00etara. Bertan aurkeztu beharko dute bazkide berriaren nortasun agiria edota familia liburua, helbidea, posta kutxa eta telefono zenbakia. Futbol taldeko Zuzendaritza Batzordeak baldintza hauek betetzen dituzten bazkide guztiei eskutitza luzatuko die datozen egunotan, non asmo hauen berri emango zaien.

Batzarra, urtarrilaren 16an

Bestalde, Tolosak elkartearen urteko batzarraren gaineko deialdia luzatu du. Batzarra 2006ko urtarrilaren 16an egingo dute, 19:30ean lehen deialdian, eta 20:00etan bigarren eta azken deialdian. Honakoa izango da landuko den gai zerrenda: lehenik eta behin, aurreko aktaren irakurketa eta onespina egingo dute. Ondoren, klubaren kontuen egoera ekarriko dute mahai gainera eta 2006. urteko aurrekontuen gainean eztabaidatuko dute. Hirugarren puntu bezala, klubaren informazio orokorraren gainean jardungo dute, esaterako, komenioak, proiektuak eta klubaren 750. urteurrena. Ondoren, igerilekuaren balorazio ekonomikoa eta bideragarritasuna izango dute hizpide. Eta azkenik, batzarrari amaiera emateko, bertan bildutakoek galderak eta proposamenak egiteko aukera izango dute.

TOLOSA ▶ GIZARTEA

Gabonetako haur parkea abiarazi dute, adin guztietako haurrei zuzenduta

Abenduaren 31 bitarte Ferialekuan izango da, goiz eta arratsalde

N. LATABURU

Gabonetako oporraldian etxeko gaztetxoentzako eskaintza zabala prestatu dute gurean. Ohiko ludotekaz gain, Tolosako Udalak Gabonetako haur parkea egokituko du. Horrela, abenduaren 31 bitarte Ferialekua parke erraldoi bilakatuko dute. Atzo ireki zuten, eta ordutegia 10:30etik 13:30era eta 15:30etik 19:30era izango da, sarrera 3 eurokoa izango delarik. Aurtengo jolasguneak adin guztientzako haurrei zuzenduta daude: bugee run, zezen mekanikoa, puzgarriak, santa fe

trena, ludoteka, balearen puzgarria, bideo jolasak, ohe elastikoak, puzgarri handiak, jumping, spider zone, ateak eta bi tailer prestatu dituzte, besteak beste.

Gazteek ere izango dute haientzat prestatutako bestelako ekitaldirik. Izan ere, 13 eta 17 urte bitartekoentzat II. Gazte Astea antolatu du Gazteria sailak. Ez dute aspertzeko betarik izango, bada: gaur, esaterako, 16:30etik aurrera ping-pong eta xake txapelketak antolatu dituzte. Biharkoan, 10:00etan futbol neurketak jokatu dituzte eta 16:30ean, berriz, pin-

txo lehiaketa antolatu dute. Etzi, ostegunean, aeroboxing praktikatu ahal izango dute gazteek, 16:30etik aurrera. Amaitzeko, ostiralean Tau Ceramica taldearen eta Wintert-hur FCB taldearen arteko partid izango dute ikusgai gazteek. Hitzordua 19:00etarako egin dute. Alpatu ekitaldi hauek guztiak Kultur Etxean egingo dituzte eta izena emateko Topagunera jo beharko dute interesatuek. Udalarekin batera, gazteekin lan egiten duten taldeek ere euren ludotekak antolatu dituzte datozen egunotan.

TOLOSA ▶

Leidor aretoa berritzeko diru-laguntza eman du Aldundiak

N. LATABURU

Diputatuen Kontseiluek 900.000 euroko laguntza baimendu du Tolosako Udalaren alde, Leidor zinema areto berriko obrak finantzatzeko. Egitasmo hau Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2004-2007 aldiko Inbertsioen Aparteko Planean aurreikusitako egitekoen barruan sartuta dago. Plan horri esker zenbait jarduera estrategiko finantzatzeko, Gipuzkoako lurraldeak izan ditzan Gipuzkoa Hiria asmora hurbiltzeko behar adinako zerbitzu, azpiegitura eta ekipamendu berri.

TOLOSA ▶

Lasarteri omen erakusketa, Aranburun

Urtarrilaren 16a bitarte, Manuel Lasarte bertsolariaren omenez antolaturiko erakusketa dago ikusgai Aranburu Jauregian. Bisita orduak 17:30etik 20:30era izango dira, jaiegun eta astelehene-tan izan ezik.

TOLOSA ▶

Mendiko federatu txartelak tramitatzeko deia

Alpino Uzturre elkarteak 2006 urterako mendiko federatu txartelak tramitatzeko hasi zen pasa den astean. Horrela, abenduaren 31 bitarte, larunbata, tramitazio hau burutzeko aukera izango da elkartean bertan. Ordutegia 19:30etik 21:00etara izango da.

ASTEASU ▶

‘Txoritxoak’ filma udaletxeko zine gelan, gaur

Gaur, Gabonetako ekitaldien barruan, udaletxeko zine-gela, 16:00etatik aurrera, *Txoritxoak* filma izango da ikusgai, etxeko gaztetxoentz zuzenduta.

KULTURA ▶

Alurr dantza taldearen DVDa salgai

Alurr dantza taldeak bere historia biltzen duen DVDa salgai jarri du, Tolosako Ortazar denda (Maxi Eroski parean dagoena), eta Ibarra-ko Zubiaurre tabernan, Sendi ekintza eta Lourdes denda. Interesatuek bertan erosi ahaliko dute, 12 euroren truke.

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.:616 93 17 88



Aduna. Familia bakarreko etxebizitza salgai. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Amezket. Elkarri abixikitako etxe berria salgai. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Aduna. Familia bakarreko etxebizitza salgai. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Tolosa. Pisu altua, igogailuarekin. Hiru logelarekin, eguzkitsua eta trastelekuarekin. Etxesagasti. 943 69 68 56

Segura. Banakako baserria salgai, lursailarekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Légorreta. Hiru logela dituen etxea berritzeko. Igogailua du. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Andoain. Eraikuntza berriko etxe izugarria salgai. Hiru logelarekin, garaje ibiarekin. Oso polita, ikusgarria. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Zizurkil. Egongela,

sukaldea, 3 logela eta bainugela. Berokuntza, igogailua eta trastelekuarekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Eskaera handia dela eta, etxebizitza, bakarkako etxeak, baserriak eta nekazal eta hirigintzarako lursailak behar dira, alokairuan edo salmentan Tolosaldean. Interesatuek deitu Etxesagastira: 943 69 68 56.

iragarki laburrak ▶

OHARRAK

Harremanak. Francisca Garmendia Sarasola sendiarekin harremanetan jarri nahi dugu. Deitu, arren, 943 62 48 60 telefono zenbakira.

SALGAI

Egurra. Su egur lehorra salgai. Pagoa eta haritza. Telf.: 615 75 57 62 (arratsaldetan).

GASTRONOMIA ▶

Merkatal Ibilbideari saria

Tolosako Eceiza Gozotegiak Gipuzkoako Merkataritza Ganbararen eskutik jaso du Merkatal Ibilbideari Saria; 1924an sortu zen enpresa honek bizirik darrai fundatzailearen seme eta bilobei esker

IÑIGO ASENSIO

Merkataritza Jarduerari Saria jaso zuen Tolosako Eceiza gozotegiak abenduaren lehenengo astean. Sari honekin Luis Eceizaren lana aintzat hartu du Gipuzkoako Merkataritza Ganbarak, urtetan, Eceiza familiak merkataritzarekiko izandako dedikazioa sarituz. Sari bana-keta Donostiako Arantzazu hotelean izan zen, eta bertan Luis Eceiza berak, gozotegiaren fundatzailearen semeak, jaso zuen saria. Eceiza gozotegiaz gain, Mendaroko Txokolatex, Get In eta Irungo Merkatarien elkarteak jaso zituzten Gipuzkoako Ganbarak emandako sari hauek.

Ereiten duenak gerora jaso ohi duela diote, lasterbideek ez omen dutela luzera balio izaten. Dударik gabe, Luis Eceizarena, erein eta jasotzeko itxaron duenaren istorioa da. 75 urterekin, lehen aldiz jaso du sari bat gozogintza munduan



Patxi Eceiza, Pablo Gorosabel kaleko dendan, eskaintzen dituzten produktu ugarietako batzuekin. I. ASENSIO

hain ezaguna den tolosar honek. Nicolas Eceiza fundatzailearen semea da bera, 15 urte zituenetik labe eta gozo artean aritu da, eta duela 10 urte jubilatu zen arren, ez du mantala armairuan gorde. «Beti daukat pastel berriak sortzeko gogo

hori, edota daudenak hobetzeko. Lehengai berriak eta beste-lako berrikuntzak aurkitzen saiatzen jarraitzen dut. 15 urte nituenetik ez dut besterik egin; gozoak nire bizitza izan dira, eta oraindik ere izaten jarraitzen dute», onartzen du.

1924an sortu zuen bere aita, Nicolas Eceizak, lehenengo denda Tolosan; egun, Pablo Gorosabele kale iskinen dagoen berbera. Gerora, Luis Eceiza dagoeneko lanean ari zela, San Frantzisko pasealekuko denda erostea erabaki

zuten. Orduan negozioak 30 urte zituen, eta handitu egin behar zutela erabaki zuten. Egund 81 urte dituen gozotegi honetatik hiru belaunaldiren lana pasatu da. Nicolas Eceiza fundatzailearen ondoren Luis Eceiza aritu zen, eta orain bere hiru semeek, Patxi, Luisek eta Juanek, hartu diete lekukoa aita eta aitonari.

Eguberriak direla-eta inoiz baino lanpetuago dabiltzala onartzen du Luis Eceizak. «Eguberrietan lan asko izaten da, eta Errege Egunean urteko egunik gogorrena izaten dugu. Igande batean saltzen dena baino hamar aldiz gehiago sal daiteke egun horretan, eta erokeria izaten da». Urteen joan-etorriarekin iritsitako aurrerapen teknikoek zenbait lan errazten dituztela aitortzen du, baina berarentzat gozogintzak sekretu bakarra duela dio: gurina, almendra eta arraultza gorringoa. Ziur sinpletasun horretaz harago, tolosarrak bes-telako sekreturik gorde digula.

LUIS ECEIZA ▶ GOZOGILEA

«Aitak aspaldi hasitako lanaren saria izan da hau»

15 urtetatik gozogintzan aritu da Luis Eceiza. Gozo artean bizitza osoa pasatu ondoren jaso du bere lehen saria. Ibilbide bati eskainitako saria dela esan daiteke, bere aitak 1924ean hasi eta bere hiru semeek gaur egun jarraitzen duten ibilbideari saria. Ibilbide horretaz eta lortutako sariaz mintzatu da Eceiza HITZarekin. **Zer suposatzen du zuretzat sari hau jaso izanak?**

Poza. Dugarik ez dago. Nik banekien omendua izan behar nuela, baina ez nekien saririk



I. ASENSIO

jaso behar nuenik. Gainera, saria lagun baten eskutik jaso nuen, Jose Maria Etxarri Ganbarako Presidentearen eskutik, eta horrek bereziagoa egin zuen guztia.

Pastelgintzan jaso duzun lehen saria da, ezta?

Bai, egindako lana aintzat hartu dute, baina ez bakarrik nire lana. Aitak aspaldi hasi zuen lanaren saria izan da hau, gaur egun nire hiru semeek jarraitzen duten lanari saria.

Sariak asko izan ez badira ere ospe handia lortu du Eceizak,

zein da horretan zeresan gehien izan duen produktua?

Gure berezitasunak tximistak, bonbak eta hostopila izan dira betidanik. Gero, 70. hamarkadan, teilak eta zigarriloak egiten hasi nintzen eta horiei esker entzute handia lortu genuen. Teilak ordurako Katalunia aldean egiten ziren, baina dezentte hobetzeko aukera zegoela pentsatu nuen eta lanean hasi nintzen. Askok dira, denborarekin, egiten hasi direnak, baina hemen inguruan, behintzat, gu izan ginen lehenak. ◀

hitza *lagunen*
txokoa
Egin zaitez HITZaren harpidedun ordaintzaile
943 30 43 46
(goizeko 8:30etik gaueko 20:30era)
zozketak, deskontuak...

PILOTA PARTIDUETARAKO SARRERAK

Aspek antolatuta asteazkenean hilak 28ean 16:30ean **Beotibarren** jokatu diren pilota partiduetarako bina sarreraren irabazleak diren harpidedun laguntzaileak:

- ELENA BARAIBAR AIZEBURU (Ibarra)
- SUSANA ITURRALDE KILDAL (Berastegi)
- KARMEN MURUA GOROSTIDI (Aitzo)

GALARZA V - ARIZMENDI // CHAFFEE - LASKURAIN

GONZALEZ - GOÑI III // MTZ. DE IRUJO - PASCUAL
(Gabonetako Torneoa)

BALEZTENA - ARROYO II // BERSALUZE IX - GALARZA VI

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZaren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

KOMUNIKABIDEAK ▶

Txolarre, uhin onenetan

Bost urte pasatu dira Txolarre Irratia sortu zenetik; herriko jende 'xumeak' lagunduta hasi zen irrati hau gero eta indar handiagoa hartzen ari da; horren sekretua, borondatean eta gogoan dago



NEREA URBIZU

107,5 eta 102,0 frekuentzietan entzun daitekeen eskualdeko irratiak, isil-isilik, bere bost urtekoak bete ditu jada. Irratibok, aurren ere, Anoetako Gabonetako ludotekako haurrekin ospatu dute hori. «Momentu baten haur pelaiago egon la-dira ere, ludotekako 19 haur etorri dira, eta launaka, irratiari sartu eta abestu edota kontuak esaten artu dira», zioen Jon Miranda esatariak. Bere gidaritzapean eta ordubetetik, denek hartu zuten parte Ondoko gelan, gosari eder bat datatzeko aukera izan zuten haurrak, eta baita, irrati-entzun bitartean, jolasteko parada ere.


Txolarre Irratia errealtate bat da, ez dago esan beharrik, eta entzuleak dira errealtate horren atal garrantzitsuenetako bat. Horregatik, hobeak izan behar du. «Proiektua zabildu egin behar da, kalitateari begira, irrati etxetara hobe alegatu dadin aurrera pausok eman». Jon Miranda esatariak argitzen duen moduan. Baina, argi dago hori irratia erakustetik at gertatu dela, izan ere, udriko asilo behar da hori aurreratu egiteko, eta Txolarre inbertsioa ezin du bere gain hartu.

Beste amateko bat, aurretian ari zuten moduan, lan-taldeari begira litzateke. «Irratiari borondatez eta musurik dabilen kateari libereki gaste saio dago (jotz). Amaia eta Leire, besteak beste), kolaboratzen ari zuten dira, eta ez dute horregatik dirurik irabazten». Erakusten duten motibazioa «bistakoa» da, baina «egindako lana ordaintzea ez legoke gaitzi». Miranda esaten du, baina, «bereziki aurreratu egiteko denon artean pausok emateko prest egin behar dute, eta Txolarre horretarako prest dago».

Beste amateko bat, atzean dagoen jende hiri ageriago utzi nahi izatea da, irratiari proiektu independentea den heinean onerako, eta txarretarako, jasotzen dituzten laguntza horiek, nolabait esatearen, egituratu egin nahi dituzte: bazkidetza pentsatu dute, besteak beste. Zorionk berorak etxeko irratiak.

Webgunea abian da

Bost urte hauek ez dira alferrik igaro. Irrati gaste nahiz sendo honen egitasmoen artean ordenadorearen bidez irrati entzuteko aukera zabaldua da, entzule guztiek irratiari adigai direnak egoki entzun ditzaten. Laster ita-zen da martxan: 2008ko urtarrian, alegia.



Alde batetik, lantaldeari begira zerbitzu hobegoa eskainta ahal izateko, eta bestetik, kalitatean aurrera egiteko (web-gunea, 101,2 irratiaren sare hiri zabaldua...).

Orain arteko kezka Txolarre- ren iraupenaren ingurukoa izan da, baina proiektua egon-kortu egin da, eta oraingo kezka beste bat da: «Proiektua zabildu egin behar da, kalitateari begira, irrati etxetara hobe alegatu dadin aurrera pausok eman».

Jon Miranda esatariak argitzen duen moduan. Baina, argi dago hori irratia erakustetik at gertatu dela, izan ere, udriko asilo behar da hori aurreratu egiteko, eta Txolarre inbertsioa ezin du bere gain hartu.

Beste amateko bat, aurretian ari zuten moduan, lan-taldeari begira litzateke. «Irratiari borondatez eta musurik dabilen kateari libereki gaste saio dago (jotz). Amaia eta Leire, besteak beste), kolaboratzen ari zuten dira, eta ez dute horregatik dirurik irabazten».

Erakusten duten motibazioa «bistakoa» da, baina «egindako lana ordaintzea ez legoke gaitzi». Miranda esaten du, baina, «bereziki aurreratu egiteko denon artean pausok emateko prest egin behar dute, eta Txolarre horretarako prest dago».

Beste amateko bat, atzean dagoen jende hiri ageriago utzi nahi izatea da, irratiari proiektu independentea den heinean onerako, eta txarretarako, jasotzen dituzten laguntza horiek, nolabait esatearen, egituratu egin nahi dituzte: bazkidetza pentsatu dute, besteak beste. Zorionk berorak etxeko irratiak.



Julen Goikotxeara, Amaia Goikotxeara eta Eneitz Urkula, Hitzak Egan saioiko arduradunak. TXOLARRE IRATIA

Zortzi orduz saioak entzunez eguneroko

Txolarrek saio ugari eta era guztietakoak eskaintzen ditu bere programazioan

IMANOL GARCIA

Txolarre Irratiko aurtengo al-daketan nagusia, programazio-ri dagokionez, lehen baino ordu gehiago emittitzen dela da, hots, eguneroko zazpi edo zortzi orduz saioak entzunez dardela. Bost atalean banatu daitezke saioak: Tolosaldeko Ahotsa goizeko nagusia, *Hi-tzak Egan* asteburuko magazi-na, saio libreak, eskolako saio-ak eta Arrosa Irrati Zentroko-ak.

Jon Mirandak gidatzen du Tolosaldeko Ahotsa nagusia. Eskualdearen berri jakiteko saioa da, eta irratioko progra-mazioaren oinarria. Atal ugari ditu: eguraldia, informazioa, eskualdeko oharrak, agenda, elkarbizitak... eta azken ordu-betean lehialeta eta kantu es-kuak.

Zortziko aldeberria bertola-ritari buruzko saioak bere tar-tes izaten du astero. Ohiko ko-laborazioa ere izaten dira. Pa-blo Alberdik Tolosaldeko azokari buruz egiten du, Jose Angel Sa-ranek herri kirolari buruz eta Jose Landak eguraldia. Bestal-de, irekita dago eskualdeko el-karteak, eta egun, ENEA-B. Bil-gune Feministak, Elxerak-ek eta Iratzik berei tar-tes dute.

Saio libreak edozein herria-rra dauka irekita. Txolarre- ra joan, saio bat proposatu eta egin dezake edonork. *Street Noise*, *Bide Okerretik*—aurten hasi den saioa eta zumean el- karbizitak egiten dituen—, *Gau bero* eta *Arkako Show* dira egun gaurien entzuten di-renak.

Hitzak Egan magazina orain hiru urte hasi zen Leire Zubel-dia eta Igotz Alkortaen eskutik

eta, batez ere, kazetaritza ikas-ten ari diren zortzi pentsatuta dago. Formazioarako bide bat da. Egun Amaia Goikotxeara, Eneitz Urkula eta Julen Goikotxeara dira saioaz arduratzen direnak, eta irekita dago parte hartu nahi duten kazetaritza ikasleentzat. Eguraldia, infor-mazio erabilgarria, asteko al-bistei errepasoak, elkarbizitak, Euskal Herriari barrena ibilal-diak, eguneroko tartea (bidaia, historia, biografia...), kontuak egan bitxikerien tar-tesa, nobe-deak, kolaboratzaileen tar-tesa, eta, bukatzeko, agenda, disko eskaintak eta lehialeta dira saioan entzun ahal izaten direnak.

Beste atal bat eskolara da: eskola ezberdinei irratia zabal-tesa da asmoa. Egun hiru saio egiten dira, eta Anoetako ikas-tolak, Solano musika eskolak eta Loatzto musika eskolak har-zen dute parte.

Herri irratiak osatzen dute Arrosa Irrati Ekolapen zentroa, tartean Txolarre Irratiak. Bil-gune horretatik zerbitzari batean saio interesgarriak sar-ten di-tuzte, eta horietatik zenbait au-

keratu ditu Txolarrek. Euskali ezberdinek entzuteko aukera ematen dute irrati horietako saioen bitartez.

Lan taldea

Jon Miranda da egun soldata-pean aritzen den laguntza Txo-larren. «Tolosaldean dagoen irundaria» bezala definitzen du bere burua, eta kazetaritza ikasketak egin ez baditu ere—Politika eta Administrazio Zientzien lizentziatua da—, eskarmentua bazuen Txola-rren artu aurretik beste irrati batzuetan.

Datorren urterako Txolarre Irratiak lan taldea sendotu na-hi du. Horretarako, udalei ru-zendutako kuestionari, urtera legez, bitarteko euro bat es-kaizen dietek. Txostenen ze-hazten da, halaber, langile bat izateak ekartzen dituen hobe-kuntzak eta pausu bat aurrera egi-teko beharrezkoa dela soldata-pean jende pelaiago izatea. Lei-re Zubeldiak eta Igotz Alkortaek aurrean dituzte saioak.

Hitzak Egan saioan hasi ziren praktikak egiten, eta egun ko-laboratzaile lanetan ari dira Tolosaldeko ahotsa saioan. Al-kortak Bertolari Txapelketa Nagusia jorratu du, eta Zubel-dia Durangoko Azoka, esate-ra, Zubeldia kazetaritza eta Al-berta ikusentzunezko komu-nikazioa ikasten ari dira Leio-an, eta biak praktikak egiten ari dira Euzkadi Irratiari. Txole-rek «harrobi» lana egiten dau-lia diote. «Zuzenekoak emiten duen adrenalina eta jendea-ekin dazur harenaren zue-kan, erakartzen die biei irra-tik. «Komunikabide bizi» da, diote, eta etorkizunaren irratian entzuteko asmoa dute.

Bere aldetik, *Hitzak Egan* saioiko Amaia Goikotxearak esko ikasten ari dela dio: «Mi-krofono aurrean hitz egiteko modua, zerbitu gertatzen de-rean nola atera horrik, elka-ritzaketak egiten jendearen a-urrean irekitzen, eskaintzen...».

PROGRAMAZIOA ▶

ASTELEHENA
11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa nagusia.
19:00-21:00. Tolosaldeko ahotsa nagusia (errepikapena).
21:00-22:00. Argizari aldaketa (Xorron Irratia).
22:00-23:00. Arkako show.

ASTEARTEA
11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa nagusia.
18:00-19:00. Adi guri irrati eskola.
19:00-21:00. Tolosaldeko ahotsa nagusia (errepikapena).
21:00-22:00. Gure arbasoak (Inleji Irratia).
22:00-23:00. Street noise.

ASTEAZKENA
11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa nagusia.
18:00-19:00. Iratzi uhinak (Sazetazara).
19:00-21:00. Tolosaldeko ahotsa nagusia (errepikapena).
21:00-22:00. Gora Euzkadi Chistulari (Matxakoa Irratia).
22:00-23:00. Gau bero.

OSTEGUNA
11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa nagusia.
18:00-19:00. Loatzo musika eskola.
19:00-21:00. Tolosaldeko ahotsa nagusia (errepikapena).
21:00-22:00. Gora Euzkadi Chistulari (Matxakoa Irratia).
22:00-23:00. Gau bero.

OSTIRALA
11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa nagusia.
19:00-21:00. Tolosaldeko ahotsa nagusia (errepikapena).
21:00-22:00. Zaharrek berri (Hito-Beti Irratia).
22:00-23:00. Arkako show.

LARUNBATA
10:00-13:00. Hitzak Egan.

IGANDEA
10:00-12:00. Hitzak Egan magazina (errepikapena).

hitza^k

zure marrazkia

argitaratuko du!

Nola ikusten duzu zure herria?

bidali zure marrazkia!

3 eta 12 urte arteko haurrak,

bidali zure marrazkiak HITZAKo egoitzara (Araba etorbidea 5, atzea Tolosa 20400), zuren izen-abizenak, adina eta marrazkiaren azalpen labur batekin). Marrazkiaren formatua: DIN A4

Parte-hartzaileen artean saririk zozkatutako ditugu. Marrazkien erakusketa egingo du urtarikoa Tolosaldeko Alde Zaharra Merkataritza Elkartek.

• BAZAR AMIANO	KORREO, 44	• SHANTI KIROLAK	RONDILLA, 11 bis	• GORROTXATEGI GOZOTEGIA	PLAZA ZAHARRA, 7
• DAKARO	KORREO, 50	• BERMUDEZ FRUTATEGIA	RONDILLA, 19	• ARANBURU UBURUTEGIA	SOLANA, 7
• MAITE GOXOKIAK	KORREO, 19	• MUÑAGORRI HARATEGIA	RONDILLA, 5	• OGII-BERRI	ESKOLAKOIKARRO IKARTEGIAK, 1
• IRURA OKINDEGIA	KORREO, 50 (bidaltzeko)	• KINU	RONDILLA, 17	• OGII-BERRI	NAGUSIA, 13
• AITUNA HARATEGIA	KORREO, 44	• ALEJANDRO GOYA HARATEGIA	RONDILLA, 23	• NATURAL BODY - B. COLLADO	NAGUSIA, 25
• SUKIA HARATEGIA	KORREO, 39	• XIRIMIRI TXOKOLATEGIA	ERREMENTARI, 40	• KIMETZ	NAGUSIA, 23
• LA CASA AZUL	KORREO, 21	• INTERFILM	ERREMENTARI, 44	• GORROTXATEGI DIETETIKA	NAGUSIA, 2
• OGII ONA	KORREO, 37	• IZARRALDE HARATEGIA	ERREMENTARI, 4/6	• PIRULOTS	UPZA, 4/6
• NOOR	KORREO, 16	• BIJUNTX UBURUDENDA	AKOSTEGIETA, 2/6	• EDE UBURUDENDA	UPZA, 4/6
• EZEIZA GOZOTEGIA	RONDILLA, 34	• ZUNBELTZ DISKAK	AKOSTEGIETA, 9	• EL BACALAO GOXOKIAK	KORREO, 51 (KALITERATZAI)

ALDE ZAHARREKO MERKATARI ELKARTEA

Lurrin-denda

Maite

Utzi goxoak denon atsegin zaizkigulako. Opartu sentipen onak

9:00 - 13:00
16:00 - 20:00

komunikabideak: 900.01.01.01.01

KIMETZ

Eguberrietako eskeintzak % 20

Nagusia, 23 • TOLOSA • Tel.: 943 67 38 62

ASTEASU ▶ GIZARTEA



Javier Madrazo eta Iñaki Amenabar, atzo, Soziokultural zentroan. i. r.

Gustura daude Soziokultural zentroarekin

Javier Madrazo Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailburuaren bisita izan du

IÑIGO TERRADILLOS

Asteasuko Soziokultural zentro berriak Javier Madrazo, EAEko Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailburuaren bisita izan zuen atzo inauguratu zutenetik ia 2 hilabete igaro direnean. Sailburuak Udaleko ordezkariak lagunduta ikusi zituen zentro berriak dituen instalakuntza guztiak, hala nola, KZ-gunea, liburutegia, Osakidetza kontsultategia eta balioanitzeko beste hainbat gela. Halaber, Kultur Etxeko ardura-duna ere bertan izan zen eta «martxan jarri zenetik oso harrrera ona izan duela eta liburutegiak, batez ere, erabiltzaile kopurua asko handitu duela

dituen berrikuntzengatik» zehaztu zuen. Osakidetza kontsultagatik ere gauza bera esan zuten bertako arduradunek, eraikin zaharretik zentro berrira aldatzeak onura ugari ekarri dituela, alegia.

Madrazo gustura azaldu zen obrek utzitako emaitzekin, eta «Gobernuarentzat pozik egoteko berria da horrelakoak egiteko diruz lagundu eta hain ondorio ona izan duela herrian ikustea», gehitu zuen. Bestalde, Iñaki Amenabar Asteasuko alkateak Gobernutik jasotako laguntza eskertu nahi izan zuen, bai Soziokultural zentro berria egiteko, bai eta Kale Nagusiko eta Elizmendiko obrak aurrera eramateko ere.

GIZARTEA ▶

EHNA egin eta erabilera bultzatzeko deialdia

Tolosaldean EHNaren gida bat egitea da orain Bai Euskal Herriari-k duen erronka



EHNaren erabilera bultzatzeko kontzentrazioa egin zuten. HITZA



Tolosalako Maxi Eroskin, EHNarekin erosketak egiten. HITZA

ERREDAKZIOA

Pasa den ostiralean Tolosaldeko Bai Euskal Herriari-k bultzatuta EHNA erabili ekimena burutu zuten 40 lagun inguruk Tolosalako Maxi Eroskin. Batetik, EHNarekin aritu ziren erosketak egiten, eta bestetik, kanpoaldean, *Euskaldunak Garelako EHNA erabili dezagun* lelopean kontzentrazioa egin zuten. Horrez gain, Olentzeroz jantzitako bi lagun jendeari eskutitzak banatzen aritu ziren EHNA erabiltzea animatuz, eta bitartean, megafonia bidez, EHNA egin eta erabiltzeko mezuak

luzatu zituzten. Bai Euskal Herriari-k bultzatutako ekimena idatzi bat irakurritz bukatu zen.

Tolosaldeko hainbat denda, elkarte, udaletxe, jatetxe, gasolindegia eta abarretan EHNA onartzen dutela, baina badirela gutxi batzuk onartzearen aurka daudenak, eta orain erronka Tolosaldean EHNAren gida bat egitea izango dela azaldu zuten. Bestalde, «EHNA eginaz ez dugu gure naziotasun eskubidearen aldarrikapen huts bat egiten, gure naziotasuna praktikan gauzatzen dugun», adierazi zuten, bere erabilera bultzatuz.

LEABURU ▶

‘Hitzak patriketan’ bihar, gazte gelan

Bihar 11:00etan *Hitzak patriketan* antzerki saioa ikusteko aukera izango da Leaburuko gazte gelan. Belauntzako, Gazteluko, Leaburu-Txaramako eta Orexako ludotekaren baitan antolatutako ekitaldia izango da.

IBARRA ▶

Elvi sabel hitzuna gaurkoan, Kultur Etxean

Ibarrako Kultura eta Gazteria Batzordeak Eguberrietarako haur eta gaztetxoek zuzendutako egitarau berezia antolatu du. Gaur, 11:30ean Elvi sabel hitzuna ikusteko parada izango da Benito Izagirre kultur etxean. Bihar, berriaz, Trikuharri taldearen *Iñaxitoren ametsak* bertso antzerkia izango da ikusgai. Haur, gaztetxo, guraso zein aiton-amonei bertaratzeko gonbita luzatzen diete antolatzaileek.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irurra.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Germikako arbola: 006900

▶ Amaroizko dispen.: 672637

▶ Asunzioz klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930
Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitza: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

Besterik.

▶ **Ertzaintza:** 538820

▶ **Tolosa-Udaltzaingoa:** 675858

▶ **Tolargi:** 650016

▶ **Iurramendi egoitza:** 670325

▶ **Tolosa gasa:** 675320

hilberriak eta urteurrenak ▶

Juliana Zabala Goikoetxea

andrea

—Goian bego—

Zurekin, izeba,
joan da gure bizitzaren zati bat
eta gure bihotzetan gelditzen da
zuek emandako gutzia

Zure ilobak

ALTZO, 2005eko abenduaren 27a



▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

**Gipuzkoan
50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

GABONAK ▶

Olentzero «lapurtu» du Guardia Zibilak Areson

Gabon gauean eramaten hainbat herritarrek ikusi ditu; hala ere, etorri eta opariak eta ikatza ere banatu ditu, noski

JAIONE ASTIBIA

Gabon gauean «Guardia Zibilak Aresoko Plaza Zaharrean zegoen Olentzeroa lapurtu» zuela eman zuten jakitera atzo, bai Udaleko arduradunek eta baita eskolako guraso elkarte eta kultur taldeak ere, ohar baten bidez. «24etik 25erako goizaldeko ordubiak eta erdi alde-
ra», zuzeneko lekukoek HITZARI adierazi ziotenez, «Plaza Zaharrean Guardia Zibilaren patrol bat» ikusi zuten, eta, «bizilagunak han zeudela ohartu zirenean, Olentzeroa patrolean sartu eta presaka aldegin zuten, argi itzaliek», argitu zuten.

Gertakizun honen berri eman nahi izan zuten atzokoan herriko alkateak berak ere, eta «herri ekimenaren aurkako ekintza» izan dela salatu zuten: «Olentzeroa herriko jendeak jartzen du, guraso elkarteak, kultur taldeak... herriaren aurka egin eta herriko festa bat zapuzteko modua da».

«Ez dut ulertzen nola egin daitezkeen horrelako gauzak», zioen, berak: «Eragiten duten izuaz baliatzen dira nahi dutena egiteko; aurreko aldietan errezelo garbia bagenuen, baina oraingoan ikusi egin dituzte», zehaztu zuten.

«Behin eta berrizko eraso»

Izan ere, «ez da aurreneko aldia Olentzeroa desagertzen»



Guardia Zibilak ebatsia izaki, bere etxea hutsik ageri zen Areson. J. A.

dela. Duela bi urte, «txiki-txiki eginda», bidegurutzean azaldu omen zen; iaz, «burua moztuta eta bertako arboletik zintzilik, modu oso txarrean»; bi aldi horietan Urte Zahar gauean: «Aurten, Gabon gauean eta eraman egin dute», azaldu zuten bertan.

Ekintza honen aurrean, «Udalak neurriak hartuko ditu», eman zuten jakitera, «salaketa jarriko dugu eta gure neurriak hartuko», ziurtatu zuten. Zentzu horretan, «euska kultura eta ohituren aurkako» ekintza modura jo zuten Olentzeroren antolakuntzaz arduratzen diren taldeek ere, «bai Areson, Nafarroan eta Euskal

Herri osoan ere, Espainiako estatutik bidali dizkiguten gizon armatu hauen asmoa zein den» erakusten du horien ustez, «gauez eta ixilpean hain maitatua den Olentzeroa bahituz». Horrela, «gizon armatu hauen arduradun nagusiari», hots, Espainiako Gobernua Nafarroan duen ordezkari Vicente Ripari, alde batetik, «Olentzeroa Aresoko herriari itzultzea», bestetik «publikoki barkamena eskatzea» eta «horrelakorik gehiago ez gertatzea» eskaera egin die.

Bestalde aitatu behar da, Tolosaldeko eta Leitzaldeko herritarra, Olentzero iritsi zela eta ongi-etorri beroa jaso zuela le-



Leitzan, txistulari batenakera parte hartu zuten ongi-etorrian. J. ASTIBIA



Leitzako etxe atari batean Orantzaroren autobus hau zegoen aparkatuta; Villabonako haur hauek ere ongi-etorria egin zioten. HITZA



Iluntzean egin zitzaion harrera ofiziala —irudian, Leitzakoa—. J. ASTIBIA

kuz çleku, eta baita goxokiak eta opariak banatu ere. Noski, zintzoak izan direnei; besteei,

ikatzak ekarri izan ahal zien, edo deus ez! Norberak jakinen du hori.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- beheko
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-mail: enia@inmoenria.com
www.inmoenria.com

Altzo. Etxe bifamiliar ederra salgai. Ikusteko modukoa. Bista ederrak.

Asteasu. 250 m2ko etxe bifamiliarra, eraikuntza berrikoa!!

Belauntza. Eraikuntza berriko etxebizitza bifamiliarra. 462.780

euro.

Bidanía. Eraikuntza nahiko berriko etxe bifamiliarra salgai, oso egoera onean.

Ibarra. Plaza inguruan garajea salgai.

Ibarra. Euskalerría, 3. loela. Dena kanpoaldera. Oso eguzkitsua. 249.420 euro.

Ibarra. Lokal komertziala alokairuan 60m2koa. Salmentan edo alokairuan.

Tolosa. Montezku. 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Baratz eta txabolarekin. 204.345 euro.

Tolosa. Berazubi. 2 logelako etxebizitza. Bizitzera sartzeko modukoa. 234.395 euro!!

Tolosa. Sputnik. Duplex altua. Berritua.

Tolosa. Amaro azoan 3 logelako etxebizitza salgai. 225.380 euro. igogailuarekin.

Tolosa. San Esteban azoia. 3 logela. Oso eguzkitsua. Dena kanpoaldera. Berokuntzarekin.

Tolosa. Zezen-plazan. 87 m2ko etxebizitza berritzeko igogailuarekin.

Tolosa. Erdialdean (oso toki onean). Eraikuntza berriko etxebizitza. 3 logela eta bainugela. 371.425 euro.

Tolosa. Foruen Etorbidean guztiz berritutako etxebizitza salgai. Ikusteko modukoa!

Tolosa. Geltokialdea. Eraikuntza berria. 2 logela, egongela, sukaldea, bi bainugela, 2 terraza eta 2 lorategi. Behean: garajea, komuna eta txokoa.

Tolosa. Trinkete. 3 logela eta bi bainugela dituen etxebizitza salgai.

Egongela ederra. Ezin hobeto!

Tolosa. Laskurain. 80 m2 bizitzentzako modukoa. 297.500 euro.

Tolosa. Ibarrik gertu. Duplex-a garaje ibiarekin. Guztiz berritua. 297.500 euro.

Tolosa. San Frantzisko ibilbidean. Pisu ederra. 4 logela, 2 bainugela.

Tolosa. Kanpoaldera altua, berokuntzarekin. Garajea aukeran.

Tolosa. Larramendi, 96 m2. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela.

Trastelekua, garajea. 330.560 euro.

Tolosa. San Frantzisko ibilbidean 120m2-ko eraikuntza berriko etxebizitza salgai.

Tolosa. San Frantzisko-Pedro Tolosa inguruan, toki paregabe!! 4 logelako etxebizitza ederra,

garajearekin salgai.

Tolosa. Geltokialdea, alderdi berrian. Garaje ibia alokairuan.

Tolosa. Erdialdean 253 m2ko lokala (bi solairutan banatua) salgai.

Tolosa. Pablo Gorosabel. 40m2ko bulegoa alokairuan.

Tolosa. Araba Etorbidea. Garajea alokairuan.

Tolosa. Pablo Gorosabel. Taberna alokairuan.

Tolosa. Zabalaretan parek inguruan, garaje ibia salgai.

Tolosa. Zabalaretan parek inguruan, garaje ibia salgai.

Tolosa. Zabalaretan parek inguruan, garaje ibia salgai.

Tolosa. Zabalaretan parek inguruan, garaje ibia salgai.

Tolosa. Zabalaretan parek inguruan, garaje ibia salgai.

